

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

116/2019 Foru Agindua, maiatzaren 14koa, upeltegiak lurzoru urbanizaezinean kokatzeari buruzko Eltziegoko HAPOren 1. aldaketa puntualaren espedientea behin betiko onestekoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. 2018ko maiatzaren 25eko bilkuran, Eltziegoko Udalak erabaki zuen hasierako onespena ematea upeltegiak lurzoru urbanizaezinean kokatzeari buruzko HAPOren 1. aldaketa puntualaren espedienteari. Halaber, espediente jendaurrean jarri zen, iragarki bana txertatuta ALHAOren 66. zenbakian, 2018ko ekainaren 8koan, eta Diario de Noticias de Álava egunkarian, urte bereko abuztuaren 15ean.

Bigarrena. Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren 273/2018 Foru Aginduaren bitartez, ingurumen txosten estrategikoaren aldeko txostena egin zen, baldintza batzuekin, eta 2018ko urriaren 5eko 115. zenbakiko ALHAOn agitaratu zen.

Hirugarrena. Espediente jendaurrean egon zen bitartean (2018ko irailaren 15era arte) ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak, 2018ko irailaren 28ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Jendaurreko informazio epea amaitu eta gero, 2019ko urtarrilaren 24an, Vinos de los Herederos del Marqués de Riscal SA merkataritza sozietateak alegazio idazki bat aurkeztu zuen, epez kanpo, Eltziegoko Udalean.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren abenduaren 19ko 5/2018 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuen, eta honako erakunde hauen txostenak erantsi zituen: Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzarena, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarena, URA Uraren Euskal Agentziarena, eta Gobernu Ordezkaritzaren Sustapen Sailarena.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2019ko urtarrilaren 9ko sarrera data duen idazki baten bidez, Eltziegoko Udalak espediente bidali zuen, behin betiko onar zedin.

2019ko otsailaren 28ko irteera data duen idazkiaren bidez, Ingurumen eta Hirigintza Sailak Eltziegoko Udalarari jakinarazi zion administrazio espedientearen zenbait hutsune zeudela, eta zuzendu egin behar zirela.

Eltziegoko Udalak eskatutako dokumentazioa bidali zuen, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2019ko martxoaren 12an sartu zen idazkiaren bidez, eta, hala, lehen aipatutako eskakizuna bete zuen.

Seigarrena. Era berean, Diputatuen Kontseiluko abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horren berri eman zuen maiatzaren 10eko 1/2019 bilkuran.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Eltziegoko Udalak sustatutako espediente honen xedea da HAPOren baldintza bat aldatzea. Izan ere, indarrean dagoen HAPOren arabera, lurzoru urbanizaezinean kokatutako upeltegi eta nekazaritza industrietan gutxienez 500 metrora egon behar dute hiri lurzorutik edo lurzoru urbanizagarritik.

Proposatutako aldaketak hiri lurzorutik edo lurzoru urbanizagarritik 500 metro baino gutxiagora dagoen eta kalifikazio orokorra industriarako duen lurzoru urbanizaezina ukitzen du, zeinean, indarreko HAPOn arabera, debekatuta baitago upeltegiak edo nekazaritza industriak ezartzea.

Proposatzen dena da upeltegiarentzat eta nekazaritza industrietzat ezarritako baldintza hori aldatzea ("ezin dira egon 500 metro baino gutxiagora hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzorutik"), honako ñabardura hau sartuta: bizitegitarako kalifikazio orokorra duen lurzorutik bakarrik utzi beharko da gutxienez 500 metroko tartea.

Bigarrena. Agiri teknikoak honela justifikatzen du aldaketa hori egiteko premia: HAPO idazterakoan, Udalaren asmoa zen babes eremu bat sortzea soilik bizitegitarako kalifikatutako lurzoruaren inguruan, lurzoru urbanizaezinean kokatu litezkeen upeltegiak eta nekazaritza industriet bizilagunei sortutako eragozpenak gutxitze aldera. Hala ere, akats bategatik, asmo hori ez zen behar bezala jaso bere garaian onetsitako eta indarrean jarritako antolamenduan, eta horregatik aldatu nahi da orain.

Hirugarrena. 2018ko urriaren 24an, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak aldaketaren aldeko txostena eman zuen, eta adierazi zuen ez zela egokia nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa (SGEEP) aplikatzea, lurzoruaren zonifikazioa ez delako aldatzen, ez eta nekazaritza lurzorurik okupatzen ere.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, abenduaren 19ko 5/2018 bilkuran, erabaki zuen eragozpenik ez jartzea espedienteari, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea betetzen duelako eta behar bezala egokitzen delako Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legean ageri diren lurralde antolamendurako tresnetara.

Bosgarrena. Ingurumen txosten estrategikoan (Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren 273/2018 Foru Aginduaren bidez eman zen, eta agindu hori 2018ko urriaren 5eko 115. zenbakiko ALHAOn argitaratu zen), zenbait alderdi azaltzen ziren, eta haiek egokiro jaso dira hirigintza dokumentuan, Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuak 2019ko urtarrilaren 25ean egindako txostenean adierazi bezala.

Seigarrena. Espedientea aztertu ondoren, indarrean dagoen legeriaren arabera izapidetu da, eta uste da behar bezala justifikatu direla egin nahi den aldaketaren onura eta egokitasuna.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea upeltegiak lurzoru urbanizaezinean kokatzeari buruzko Eltziegoko HAPOn 1. aldaketa puntualaren espedientea.

Bigarrena. Ebazpen hau eta hari dagokion hirigintza araudia argitara ematea ALHAOn.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Eltziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 1. aldaketa puntuala

1.6.1.6. artikulua. Erakuntzako erabilera bakoitzaren hirigintza eta eraikuntza parametro berariazkoak.

1.6.1.6. artikulua. Erakuntzako erabilera bakoitzaren hirigintza eta eraikuntza parametro berariazkoak

1. Jolas intentsiboarekin zerikusia duten eraikin, eraikuntza eta instalazioak.

a. Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera: 5.000 m².

b. Eraikinaren profila edo gehieneko solairu kopurua: 2 sestraren gainetik.

c. Altuera erlaitzera edota teilatu hegalaria: 7 m, jatorrizko kota gainetik.

d. Alboko mugetarainoko gutxieneko tartea: 5 m.

e. Bideetarainoko gutxieneko tartea: 1.6.1.5. artikulua arabera.

f. Gehieneko eraikigarritasuna: lurzati hartzailearen azaleran bakarrik aplikatuko da. 0,20 m²/m² izango da.

g. Ezartzeko, plan berezi bat idatzi eta onartu behar da. Plan horretan lurzati hartzailearen esparrua mugatu eta lurzatiaren aurrealdeko bide-zatia sartu behar da, behar den urbanizazioa zehazte aldera.

2. Nekazaritza-ustiategiekin zuzenean lotutako eraikin, eraikuntza eta instalazioak (artikulu honetan arauketa espezifikoak dutenak izan ezik).

a. Lotutako lursailaren gutxieneko azalera: 8.000 m².

b. Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera: 5.000 m².

c. Eraikinaren profila edo gehieneko solairu kopurua: 1 sestraren gainetik.

d. Altuera erlaitzera edota teilatu hegalaria: 5 m jatorrizko kota gainetik. Salbuespeneko kasuetan, udalak altuera handiagoa izatea baimendu dezake. Horretarako, lizentzia-eskarian premia hori justifikatu behar da, irizpide orokorra betetzen duten aukerak baloratu behar dira eta zehatz-mehatz azaldu behar da zergatik ez diren egokiak proposaturiko xederako.

e. Goihearen gehieneko altuera: 6,50 m. Salbuespeneko kasuetan, udalak altuera handiagoa izatea baimendu dezake. Horretarako, lizentzia-eskarian premia hori justifikatu behar da, irizpide orokorra betetzen duten aukerak baloratu behar dira eta zehatz-mehatz azaldu behar da zergatik ez diren egokiak proposaturiko xederako.

f. Alboko mugetarainoko gutxieneko tartea: 5 m.

g. Bideetarainoko gutxieneko tartea: 1.6.1.5. artikulua arabera.

h. Gehieneko eraikigarritasuna: lurzati hartzailearen azaleran bakarrik aplikatuko da. 0,3 m²/m² izango da eta aprobetxamendua mugatuta egongo da: 8.000 m²-ko teilatu-azalerako eraikin bakarra. Eraikin bakartu bat baino gehiago badago, eraikigarritasun hori bera onartuko da; betiere, tartea sestra gaineko 5 metrokoa izan behar du, gutxienez.

Ezin da berotegirik jarri.

3. Ardogintzako eraikuntza eta instalazioak (upeltegiak), ustiapenaren jarduera osagarriak aintzat hartuta, erabilera nagusiaren osagarri gisa. Nekazaritza-industriak.

Nekazaritza-industriak ezartzeko upategien baldintza berberak bete behar dira, salbu lotutako nekazaritza-azaleraren gainekoak, ezin baita horiek betetzea eskatu.

Guardiako LPPn (Arabako Errioxa) zehaztutakoaren arabera, ezarri nahi izanez gero ezinbestekoa da plan berezi bat idaztea eta onartzea; plan horrek aipaturiko LPPren lehen aldaketako 34. artikuluan zehaztutako parametro eta baldintzak bete behar ditu.

a. Bi instalazio mota daude:

a.1. Eraldaketa-instalazio txikiak (mahastizain profesionala, uzta-biltzaileen upategiak barne), urtean gehienez 250.000 litro ardo ekoizten dituztenak eta, funtsean, eraldatze- eta biltegiatze-jardueretan aritzen direnak.

a.2. Upategi handiak, urtean 250.000 litro ardo baino gehiago ekoizten dituztenak eta ardo-ekoizpenaz gain beste jarduera osagarri batzuk dituztenak (ostalaritza eta abar).

b. Lurzoru urbanizaezinean upategiak ezar daitezke baldin eta ezin badira hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian ezarri; betiere, baldintza hauek bete behar dira:

b.1. Bereziki babestutako lurzoruan ez ezartzea. Upategiak natura- eta/edo baso-interesagatik babestu beharreko lurzoruetan ez jartzea.

b.2. Upategiak oinarrizko zerbitzuen premiak egoki betetzea.

b.3. Energia-kontsumoari dagokionez, eraginkortasuna aintzat hartzea eta, horretarako, energia berriztagarria erabiltzea. Upategien eraikinek Eraikingintzaren Kode Teknikoa (EKT) bete behar dute, zehazki energia aurrezteari buruzko oinarrizko dokumentuko 4. atala: etxeko ur beroaren (EUB) gutxieneko eguzki-ekarpina. Eskaria lokal bakoitzean izango duen erabilera-aren arabera zehaztu (administrazioa, hotela, tailerrak, jatetxea...) eta, EUB eskariaren arabera, gutxieneko eguzki-ekarpina ezarri behar da, kontuan hartuta Arabako Errioxa II. zona klimatikoan dagoela. Gainera, instalazioetan behar den energia osoaren parte bat lortzeko eraikinaren bero-sorkuntzako ekipoetakoak ez diren beroa berreskuratzeko instalazioetako energiak, baterako sorkuntza-prozesuak edo hondar-energia iturriak aprobetxatu behar dira.

b.4. Ezin dira egon bizitegitarako kalifikazio orokorra duen hiri lurzorutik edo lurzoru urbanizagarritik 500 metro baino gutxiagora.

b.5. Ezin dira muino-tontorretan edo ikusgai dauden zonetan egon, dagoen paisaia naturala kaltetzen badute.

a.6. Debekatuta dago, batetik, eraikigarritasunerako zenbatzen ez diren soto artifizialak egiteko lursailaren profil naturala aldatzea; eta bestetik, lurra mugitzea, baldin eta orografia aldatzen bada; hori, sarbideak egiteko izan ezik. Hala badagokie, ahalik eta txikiak izan behar dute eta aukera guztiak baloratu behar dira.

a.7. Ez dira industria-pabiloi edo eraikuntza estandarizatu edo errepikakorrak erabiliko.

a.8. Hauek izango dira mahastien eta lurzati hartzaileen gutxieneko azalera lotuak:

a.8.1. Mahastien azalera lotua: eraldaketa-instalazio txikiarako, 8 hektarea; eta erabilera osagarriak (ostalaritza eta abar) dituzten upategi handi eta eraldaketa-instalazio txikiarako, 12 hektarea.

a.8.2. Lurzati hartzaileen gutxieneko azalera: eraldaketa-instalazio txikiarako, 5.000 m²; eta erabilera osagarriak (ostalaritza eta abar) dituzten upategi handi eta eraldaketa-instalazio txikiarako, 10.000 m².

a.9. Gehiengo eraikigarritasuna: lurzati hartzailearen azalera bakarrik aplikatuko da. 0,3 m²/m² izango da eta aprobetxamendua mugatuta egongo da: 8.000 m²-ko teilatu-azalera eraikin bakarra. Eraikin bakartu bat baino gehiago badago, tarteak sestra gaineko 5 metrokoa izan behar du, gutxienez.

a.10. Instalazio bakoitzak egoki antolatuko du aparkaleku-zuzkidura. Zenbaketa bulegoetan eta jendea bertaratzeko lokaletan aurreikusitako okupazioaren arabera egingo da, EKTan (OD-SS) okupazioa kalkulatzeko ezarritako irizpideei jarraikiz. Horri gehituko zaizkio, batetik,

salgaiak garraiatzeko ibilgailu pisuenak; eta bestetik, erabilera osagarriak dituzten upategi handi eta eraldaketa-instalazio txikietan, autobusentzako aparkalekuak, zehazki, 3.000 m²-ko autobus batentzako lekua, automobilentzako gain.

a.11. Upategiaren osagarri diren instalazioek, batez ere eraldaketarekin zerikusia dutenek, tratamendu arkitektoniko egokia izan behar dute, eraikin nagusiarekin bat datorrena, eta lurzati ez dira elementu sakabanatuak eta multzoa kaltetzen duten eraikuntza osagarriak jarriko.

a.12. Lurzati hartzailearen urbanizazioa mahastirako erabiltzen ez diren alde guztietara zabalduko da, horrelakorik egonez gero. Urbanizazioak paisaia integratzeko printzipioak bete behar ditu, nagusiki tratamendu arinekin.

a.13. Guardiako LPP onartzen denean dauden eraikuntzei dagokienez:

a.13.1. Babes bereziko lurzoruetan lehendik dauden upategietan ez da berritzeko edo handitzeko jarduerarik baimenduko (mantentze-lana bakarrik onartuko da).

a.13.2. Babes berezirik ez duten lurzoruetako upategietan azalera eraikia handitu daiteke, zehazki gaur egungo azalera eraikiaren ehuneko 25, baldin eta lurzati hartzailearen okupazioa azaleraren ehuneko 50 baino handiagoa ez bada.

a.13.3. Guardiako LPP onartzen denean dauden nekazaritza-pabiloiak upategi bihur daitezke, baldin eta babes bereziko lurzoruetan kokatzen ez badira, nahiz eta lurzati hartzailearen gutxieneko azaleraren parametroa edo eraikigarritasun handiena ez bete. Hala eta guztiz ere, atal honetan ezarritako gainerako baldintzak bete behar dituzte.

a.14. Ingurumen txosten estrategikoa eta txosten sektorialak betetzea:

a.14.1. Baldin upeltegi bat egiteko kokaleku bat aukeratzen bada eta horrek zuzenean edo zeharka eragin badezake Natura 2000 Sareko Ebro ibaiaren KBE (ES2110008) naturagune babes-tuan, honako hauetan ezarritako zuzentarau eta erabilera araudiak bete beharko dira (bereziki, R.2 eta R.4 arauak):

a.14.2. 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako eta hegaztien babes bereziko eremuetarako arau orokorrak onartzen dituena.

a.14.3. 35/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Ereku izendatzen dituena.

a.14.4. Era berean, baldin upeltegi bat egiteko kokaleku bat aukeratzen bada eta horrek eragin badezake landaretza naturalean edo flora katalogatuko espezieak dauden eremu batean, gaur egun dagoen landaretza onik zaindu beharko da, eta premia eskatuko da azterketak egin daitezela baldin beharrezkoa bada espezie horiek dauden ala ez egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, hartu beharreko neurriak proposa daitezela.

a.14.5. Ingurumen integrazioarako behar den beste neurri ezarri beharko da, bermatu dadin paisaia integratuta geratuko dela aldaketa puntualaren eremuan eraiki nahi den upeltegi oro; arreta berezia jarri beharko da upeltegiren baten eraikuntzak zuzenean edo zeharka eragin badezake Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Bikain eta Berezien Katalogoan sartuta dagoen "Pobeda" izeneko 22. zenbakiko paisaia bikainean (katalogo hori Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onetsi zen).

a.14.6. Aldaketaren xede den eremu osoan, honako hauetan ezarritako zuzentarauei jarraituko zaie: 89/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturala, monumentu multzo kategoriarekin, kultur ondasun kalifikatzen duena; 7/1990 Legea, euskal kultura ondarearena; eta kultura ondarea babesteko dekretuak eta ebazpenak.

a.14.7. Kontsuluten fasean Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak bidalitako alegazioen txostenean jaso ziren zuzentarauei jarraituz, upeltegiak eraikitzea ahalbidetuko duten plan bereziak onetsi aurretik nekazaritza arloko eragina ebaluatzeko protokoloa ezarriko da, Nekazaritza eta Basogintzaren Arloko Lurralde Planaren arabera.

a.14.8. URAk lehentasunezko aukeratzat jo du saneamendu sare orokorrera sartzea, banakako arazketa egin eta jabari publiko hidraulikora (JPH) isurtzeko aukeraren aurretik. Konplexutasun teknikoagatik edo kostua neurrigabea izateagatik aukera bideragarri bakarra JPHra isurtzea bada, isurketak egiteko Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE) emandako baimena jaso beharko da, eta Uraren Euskal Agentziak (URA) egingo ditu horretarako izapideak.

a.14.9. Egin nahi diren upeltegiek JPHan eragina badute edo haren babes eremuetan kokatuta badaude, aurrez CHEren baimena jaso beharko dute. URAk izapidetuko du baimen hori.

4. Aisiako, olgetako eta naturaz eta landa-inguruneaz gozatzeko jardueretarako eraikin, eraikuntza eta instalazioak, nekazaritza-ustiategiarekin zerikusia dutenak:

- a. Lotutako lursailaren gutxieneko azalera: 8.000 m².
- b. Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera: 5.000 m².
- c. Eraikinaren profila edo gehieneko solairu kopurua: 2 sestraren gainetik.
- d. Altuera erlaitzera edota teilatu hegalerara: 7 m, jatorrizko kota gainetik.
- e. Goihaibearen gehieneko altuera: 10 m.
- f. Alboko mugetarainoko gutxieneko tartea: 5 m.
- g. Bideetarainoko gutxieneko tartea: 1.6.1.5. artikulua arabera.

h. f. Gehieneko eraikigarritasuna: lurzati hartzailearen azalera bakarrik aplikatuko da. 0,15 m²/m² izango da.

5. Lotutako familia-etxebizitzaren eraikinak, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko 12. artikuluan zehaztutako baldintzetan. Nekazaritza-turismoko establezimenduak ere sartzen dira.

- a. Baimendutako eraikuntza mota: etxebizitza bat edo biko etxea.
- b. Hirigintzako eraikigarritasuna: 0,15 m²/m², lurzati hartzailearen gainean neurtuta.
- c. Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera: 3.000 m².
- d. Eraikinaren profila edo gehieneko solairu kopurua: 2 sestraren gainetik.
- e. Altuera, gehienez, erlaitzera edo teilatu hegalerara: 7 m sestraren gainetik.
- f. Goihaibearen gehieneko altuera: 10 m sestraren gainetik.
- g. Alboko mugetarainoko gutxieneko tartea: 5 m.

h. Ustiategiarekiko lotura: Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko 12. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

6. Interes publikoko eraikuntzak.

a. Zerbitzuguneetara lotuta ez dauden gasolindegia.

a.1 Hirigintzako eraikigarritasuna: 0,10 m²/m².

a.2 Lurzatiaren azalera: librea.

a.3 Eraikinek eta markesinek okupatu dezaketen azalera, gehienez: ehuneko 20.

a.4 Eraikinaren gehieneko altuera erlaitzeraino edo teilatu hegaleraino: 3,5 m.

a.5 Alboko mugetarainoko gutxieneko tartea: 10 m.

b. Onura publikoko edo gizartearen intereseko gainerako eraikuntzak.

b.1 Hirigintzako eraikigarritasuna: 0,20 m²/m².

b.2 Lotutako gutxieneko azalera: librea.

b.3 Gehieneko solairu kopurua: 2 sestraren gainetik.

b.4 Erlaitz eta hegaletarako gehieneko altuera: 7 m sestraren gainetik.

b.5 Alboko mugetarainoko gutxieneko tartea: 5 m.

7. Aurreko puntuetan aipatutako parametroak baimendutako hirigintza jarduerak hartzen dituzten eraikin eta eraikuntzentzat dira. Lursail batek bateragarriak diren erabilera bat baino gehiago hartu ahalko ditu eta honakoak izango dira gehieneko muga osoak:

a. Nekazaritzako ustiategirik egonez gero:

a.1 Hirigintzako eraikigarritasuna: $0,40 \text{ m}^2/\text{m}^2$ lurzati hartzailearen gainean neurtuta.

b. Onura publikoko edo interes sozialeko eraikin edo instalazioak baldin badaude:

b.1 Hirigintzako eraikigarritasuna: $0,30 \text{ m}^2/\text{m}^2$.

8. Abeltzaintzako ustiategi berriek indarrean dagoen araudia bete beharko dute:

— 515/2009 Dekretua, irailaren 22koa, abeltzaintza ustiategien arau teknikoak, higiene- eta osasun-arauak eta ingurumen-arauak ezartzen dituena.